



NOLA EGIN AURRE ZAINTZEN ARI NAIZENAREN

INHIBIZIOEN GALERARI

Dementia duten pertsonak, batzuetan, jokabide desegokia izan ohi dute (eritasuna agertu arte lotsatuko lirateke). Esaterako, beste pertsona batzuen aurrean arropa erantztea, genitalak ukitzea, lehenago inoiz erabiltzen ez zituen hitz zatarrak erabiltzea, sexu-jokabide desegokiak izatea, etab. Jokabide horiek, batzuetan, badute azalpena: eriak genitalak ukitzen baditu, beharbada komunera joan nahiko du; arropa erantzten hasten bada, beharbada arropa horrekin ez da eroso egonen (estuegia, adibidez) edo beroa izan dezake.

Garrantzitsua da jakitea inhibizioen galera dementziaren sintoma dela.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Ahalegindu zakar ez erreakzionatzen jokabide horien aurrean. Eraman pertsona arretaz leku lasai batera eta han entretenitua izan.
- ▶ Distrakzioa da onena portaera horiek eteteko. Ahalegindu jarduera aldatzen, eta proposatu zerbait begiratu, entzun edo egin dezaten. Hala egiten badugu, beharbada portaera desegokia bukatuko da.
- ▶ Kasuaren larritasuna gorabehera, portaera horiek saihesteko jantziak erabil daitezke. Esaterako, bragetarik gabeko galtzak edo blusak, burutik sartzen direnak edo bizkarrean kremlera dutenak.
- ▶ Eriaren familiakoei eta hurbileko pertsonari sintomaren gaineko argibideak eman, jokabidea zein den jakin dezaten eta dementia duen pertsonaren jarduna edo iruzkina bertan behera utz dezaten, bilera sozialak alde batera utzi edo saihestu gabe (kontuan izan behar da bilera horiek onuragarriak direla erierendako eta zaintzailearendako).
- ▶ Portaera hori sor dezaketeko egoerak saihestu, baldin badakigu ezin gobernatuzkoa izanen dela edo kontrolaezina bilakatuko dela.
- ▶ Gomendatutako estrategiak erabili ondoren egoerak hobera egiten ez badu, egin kontsulta osasun arloko erreferentziako taldeari.